KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA
PLIEGO CLÁUSULAS TÉCNICAS

Hizkuntza Indartzeko Proiektua
Esp. Zk.: 10CONT-2025/000003

Euskal Herritik kanpo jaiotako Erandioko umeentzako Hizkuntza Indartzeko Proiektua antolatzea, kudeatzea eta eskolak ematea kontratatzeko.

Para contratar la organización, gestión e impartición de clases del Proyecto del Refuerzo Lingüístico para niños y niñas de Erandio nacidas fuera del País Vasco.

1- XEDEA

1.1 Helburu orokorra

Enpresa baten zerbitzuen kontratazioa arautzea da agiri honen helburua, Euskal Herritik kanpo jaiotako Erandioko umeentzako hizkuntza indartzeko proiektua antolatzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko 2025-2026 eta 2026-2027 ikasturteetan zehar, urritik maiatzera.

Programaren helburu nagusia da Erandiora heltzen diren eta D ereduan eskolatzeko aukerarik izan ez duten haur etorkinak ahalik eta eperik laburrenean bertakotzea.

1.2 Helburu zehatzak

Helburu orokor horrek helburu zehatzagoak barne hartzen ditu:

- Haur etorkinei ikasprozesuan sortu dakizkiekeen zailtasunei aurre egiten laguntzea eskola-orduetatik kanpoko saioen bidez, Erandioko ikastetxeetan (Haur eta Lehen Hezkuntzan) D eredu linguistikoa baino ez dago-eta.
- Ume etorri berriek eguneroko harremanetarako euskara maila egokia lortzen laguntzea.
- Erandioko biztanleen jatorri aniztasuna kontuan izanda, elkar ezagutzeko eta errespetua bideratzeko estrategiak lantzea, eta adin bereko neska-mutikoen artean harreman naturalak sortzeko bidea ematea.
- Umeren batek, bertan jaioa izan arren, euskararekin zailtasun berezia badauka ikastetxeak egindako txostenarekin justifikatuta, horren ikasprozesuan

1- OBJETO

1.1 Objetivo general del servicio

El presente documento tiene por objeto regular la contratación para la organización, gestión e impartición del proyecto de refuerzo lingüístico durante los cursos 2025-2026 y 2026-2027, dirigido a niños y niñas de Erandio nacidas fuera del País Vasco, de octubre a mayo.

El objetivo general es que las niñas y niños inmigrantes que lleguen a Erandio, que no hayan tenido posibilidad de escolarizarse en el modelo D, se integren en el menor periodo de tiempo posible.

1.2 Objetivos específicos del servicio

Ese objetivo general se concreta mediante los siguientes objetivos específicos:

- Ayudar a niños y niñas inmigrantes a superar las dificultades que pudieran surgir en el proceso de aprendizaje mediante clases extraescolares, dado que en los centros de enseñanza de Erandio tan solo existe el modelo lingüístico D (en Educación Infantil y Primaria).
- Ayudar a los niños y niñas recién llegadas a adquirir un nivel adecuado de euskara para sus relaciones diarias.
- Atendiendo a diversidad de orígenes de la población, desarrollar estrategias para conocerse, respetarse y establecer relaciones naturales entre chicos y chicas de la misma edad.
- Ofrecer ayuda en caso de tener especial dificultad con el euskera en su proceso de aprendizaje, aun cuando hayan nacido en Erandio (justificado siempre mediante

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-06-25 06:55:13(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:55:13 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANA ISABEL HERNANDEZ IÑIGO Data: 2025-06-25 06:59:16(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:59:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (971b4805-63c3-44ae-90e3-a6a62129baf2) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

laguntzea. Betiere, etorri berriei lehentasuna emango zaie.

Era berean, proiektuak bere helburuen artean ikasleekin genero ikuspegitik lan egitea jasoko du, harreman berdinzaleak sustatzeko kontzeptu eta baloreetan oinarrituko da eta genero, sexu-identitatea edota sexu-orientazioagatiko diskriminazioak gaitzestea sustatuko du.

2- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Egitasmoa lantzeko unean, honako hauek kontuan hartu beharko ditu enpresak:

- Erandioko Udalak ematen duen zerbitzu publikoa da, haur etorkinei zuzendutakoa.
- Parte-hartzaileek, ikasturte biko zerbitzua jasoko dute, doan; bi ikasturte egin ostean ezin izango dute jarraitu. Salbuespenik izan liteke zailtasun handia duen ikasleren batekin, baldin eta ikastetxeak eskatu, eta zailtasun hori justifikatzeko beharrezko txostena aurkezten badu.
- Zerbitzuaren eskaintza parte-hartzaileen beharrizanetatik abiatzen da, eta haien parte-hartzea sustatuko du. Era berean, zerbitzu eraldatzailea, orekatzailea, integratzailea eta hezitzailea da.
- Taldeen banaketa egiteko eta saioen egutegia osatzeko ikastetxeen egutegia hertuko da kontuan.
- Talde bakoitzarekin astean 2 saio egingo dira, bakoitza ordu eta laurdenekoa (urritik maiatzera bitartean).
- Taldea osatu ahal izateko gutxienez 5 parte-hartzaile egongo dira, eta talde bakoitzeko gehienez ere 12 ume onartu ahal izango dira.

Aurreko urteko datuak kontuan hartuta, 2025-2026 ikasturterako taldeen, egunen eta ordutegien aurreikuspena honako hau da:

informe del centro de enseñanza). Aun así, se dará prioridad a los recién llegados.

Así mismo, el proyecto recogerá entre sus objetivos, trabajar con el alumnado y desde la perspectiva de género, los valores y conceptos para el fomento de unas relaciones más igualitarias y el rechazo a las discriminaciones por motivo de género, identidad sexual, orientación sexual, etc.

2- CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO

Al preparar el proyecto la empresa habrá de tener en cuenta las siguientes consideraciones:

- Es un servicio público que presta el Ayuntamiento de Erandio dirigido a niños y niñas inmigrantes.
- Los participantes recibirán el servicio gratuito durante 2 años y después de este tiempo no podrán volver a participar. En caso de que algún estudiante tenga mayores dificultades se podrá hacer alguna excepción, siempre y cuando lo solicite el centro de estudio con su correspondiente informe justificando la necesidad.
- La oferta del servicio parte de las necesidades de los participantes y se promoverá su participación. Al mismo tiempo es un servicio transformador, equilibrador, integrador y educativo.
- Para realizar la distribución de los grupos y confeccionar el calendario de las clases se tendrán en cuenta los calendarios escolares.
- Con cada grupo se realizarán 2 sesiones semanales de una hora y cuarto cada una (entre octubre y mayo).
- El número mínimo de participantes para completar el grupo será de 5, admitiéndose un máximo de 12 niñas y niños por grupo.

Teniendo en cuenta los datos del año anterior, la previsión de grupos, días y horario para el curso 2025-2026 es la siguiente:

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-06-25 06:55:13(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:55:13 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANA ISABEL HERNANDEZ IÑIGO Data: 2025-06-25 06:59:16(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:59:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (971b4805-63c3-44ae-90e3-a6a62129baf2) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

LEKUA	LH 1-2 (6-8 urte)	LH 3-4 (8-10 urte)
Astrabudua-Euskaltegian	A Taldea – al., az. 17:00-18:15 B Taldea - ar., og. 17:00-18:15	D Taldea – ar., og. 18:20-19:35
Altzaga-Bekoa gizarte etxean	E Taldea – ar., og. 17:00-18:15	F Taldea – ar., ost. 17:00-18:15 G Taldea – ast-ost 18:20-19:35
GUZTIRA	**3 Talde**	**3 Talde**

Gehienez ere 6 talde osatuko dira eta aurreikuspena moldatu ahal izango da beharrizanen arabera.

Ikasturte batetik bestera talde kopurua aldatuko balitz, taldeko prezioari dagokion aldea aplikatuko litzaioke indarrean legokeen kontratua aldatuz.

Se formarán un máximo de 6 grupos y la previsión se podrá adaptar en función de las necesidades.

En el caso de que el número de grupos variará respecto a lo previsto, se modificaría el contrato vigente aplicando la diferencia en base al precio/grupo.

3- ZERBITZUAREN HARTZAILEAK

Proiektua atzerritik edo estatuko beste komunitate batzuetatik Erandiora bizitzera etorri diren umeei zuzenduta dago; betiere, herrian erroldaturik dauden 6-10 urte bitartekoak badira.

Zerbitzu honetan, aurretik azaldu moduan, gehienez 6 talde osatuko dira, 12 ume bakoitzeko. Hala ere, aldez aurretik Erandioko Udaleko Euskara zerbitzuarekin adostu beharko dira erabakiak. Horrez gain, zerbitzuaren hartzaile zuzenak izan ez arren, zeharkako hartzailetzat joko dira haurren heziketaren ardura partekatzen duten helduak ere (gurasoak, hezitzaileak, irakasleak...).

3- PERSONAS DESTINATARIAS

El proyecto está destinado a niños y niñas que vengan a vivir a Erandio del extranjero o de otras comunidades del estado; siempre y cuando estén empadronadas en el municipio y tengan entre 6 y 10 años.

En este proyecto se crearán máximo 5 grupos, con 12 niños/as en cada uno. Aun así, antes habrá que consensuar las decisiones con el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Erandio. Además, aunque no sean receptores directos, indirectamente también las personas adultas encargadas de la educación de los y las menores serán tomadores (familiares, educadoras y educadores, profesoras y profesores...).

Hartzaileek, finkatutako helburuei eta programari jarraituz, eskubidea dute zerbitzuak behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko. Halaber, betebeharra dute eskura jartzen zaizkien ekipamendua eta materialak errespetatu eta erabiltzeko, baita esleipendunek parte hartzeko jartzen dituzten baldintzak betetzeko ere.

Bestalde, zerbitzuaren hartzaileek, adin txikiak diren aldetik, idatziz adieraziko duten adin nagusia den arduradun batek lagunduta

Los y las receptoras, siguiendo el programa y los objetivos establecidos, tienen derecho a recibir unos servicios adecuados y efectivos. Asimismo, tienen el deber de utilizar y respetar el equipamiento y material del que dispondrán, así como cumplir las condiciones de participación establecidas por la adjudicataria.

Por otra parte, siendo las participantes menores de edad, harán el camino de ida y vuelta a las clases acompañados de algún responsable mayor de edad que así lo indique por escrito. Si

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-06-25 06:55:13(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:55:13 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANA ISABEL HERNANDEZ IÑIGO Data: 2025-06-25 06:59:16(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:59:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (971b4805-63c3-44ae-90e3-a6a62129baf2) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

egingo dituzte eskola orduetarako joan-etorriak. Hala ez balitz, hezitzaileak ez du umea joaten utziko guraso edo tutorea etorri arte.

4- ZERBITZUAREN PRESTAZIOARI BURUZ

Egin beharreko lana 1.atalean azaltzen diren helburuak betetzera bideratuko du esleipendunak; betiere, Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzapean.

4.1.- Hizkuntza indartzeko proiektuaren plangintza egitea eta kudeatzea

- Proiektuaren urteko egitaraua egitea eta abian jartzea, Euskara Zerbitzuarekin bat etorriz. Egitarauak helburuak, ekintzak eta kronograma jasoko du.
- Esleipendunak zerbitzua kudeatuko du; aldaketarik edo gorabeherarik izanez gero, horren berri eman beharko dio Euskara Zerbitzuko arduradunari.
- Programan izena emateko prozedura honako hau izango da:
  1. Erandioko ikastetxeetako irakasleak zerbitzuaren berri emango dio beharrizana duen umearen tutoreari eta izena emateko orria emango dio bete dezan.
  2. Irakasleak edo tutoreak Euskara Zerbitzuko arduradunari bidaliko dio orria behar bezala beteta eta sinatuta.
  3. Euskara Zerbitzuko arduradunak, irakasleen laguntzarekin, ume horrek benetako beharra duela egiaztatu eta orria interesdunari bidaliko dio.
  4. Esleipendunak taldeak osatu eta bilerara deituko ditu familiak, nondik norakoak eta betebeharrak ondo azaltzeko. Bata Astrabuduan egingo da eta bestea Altzagan.
- Talderen batean izen-emate kopurua aurreikusitakoa baino handiagoa bada honako hau izango da prozedura:

no es así, la educadora o educador no dejará abandonar el recinto al menor hasta que llegue algún familiar, tutora o tutor.

4- PRESTACIÓN DEL SERVICIO

La empresa adjudicataria encaminará el servicio a la consecución de los objetivos establecidos en el punto 1. siguiendo las directrices marcadas por el Servicio de Euskera.

4.1.- Confección y gestión del proyecto de refuerzo lingüístico

- Elaborar y poner en marcha de acuerdo con el Servicio de Euskera la programación del proyecto. La programación recogerá objetivos, programa y actividades a realizar.
- El adjudicatario gestionará el servicio, y en caso de haber cualquier modificación o incidencia se la comunicará al Servicio de Euskera.
- El procedimiento de inscripción en el programa será el siguiente:
  1. El profesor o profesora de los centros escolares de Erandio informará del servicio al tutor o tutora del niño o niña que lo necesite y le entregará la hoja de inscripción para su cumplimentación.
  2. El profesor, profesora, tutor o tutora enviará la hoja debidamente cumplimentada y firmada a la responsable del Servicio de Euskera.
  3. La responsable del Servicio de Euskera, con la colaboración del profesorado, comprobará la necesidad real del niño o niña y remitirá la hoja a la interesada.
  4. La adjudicataria formará los grupos y convocará a las familias a una reunión en la que se explicarán los pormenores y obligaciones. Una se celebrará en Astrabudua y otra en Altzaga.
- Si el número de inscripciones en algún grupo es superior al previsto, el procedimiento será el siguiente:

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-06-25 06:55:13(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:55:13 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANA ISABEL HERNANDEZ IÑIGO Data: 2025-06-25 06:59:16(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:59:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (971b4805-63c3-44ae-90e3-a6a62129baf2) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

1. Aurreko urtean parte hartu ez dutenek izango dute lehentasuna.
2. Lekuak libre geratzen badira, gainontzeko interesdunen artean zozketa egin eta hurrenkera jarraituz plaza eskainiko zaie.
3. Plaza barik geratu direnei, eta posible bada, maila bereko beste talde batean sartzeko aukera eskainiko zaie.
4. Prozedura jarraitu eta hala ere, guztientzako lekurik ez badago, itxaron zerrenda osatuko da zozketako hurrenkera kontuan hartuta.
5. Ikasturtean zehar bajaren bat egonez gero, itxaron zerrendan daudenei eskainiko zaie lekua hurrenkera errespetatuz.

- Parte hartzeko eskaria egin ahal izango da ikasturte osoan zehar. Dagokion mailan lekua badago zuzenean onartuko da ikaslea.

4.2.- Eskolen kontrola eta jarraipena

- Esleipendunak zerbitzuaren jarraipena eta ebaluaketa egingo ditu.

- Erandioko Udalak garatutako prozesuari buruz osoko informazio zuzena eta zehatza izan beharko du. Beraz, aldian-aldian, koordinazio-bilerak burutuko dira udalarekin, egindako lana baloratuz.

4.3.- Koordinazio lanak

- Euskara Zerbitzuarekin koordinatzea, zerbitzuaren garapenarekin zerikusia duen orotan.

- Ikastetxeetako arduradunekin koordinatzea.

Enpresa adjudikaziodunak, gutxienez, koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatuko du, Udalarekin harremanetan egoteko solaskidea izango dena eta zuzendaritza lanak egingo dituena. Zerbitzua emango duten langileekin mantendu

1. Tendrán preferencia las personas que no hayan participado en el año anterior.
2. Si quedan plazas libres, se sorteará entre los demás interesados y se les ofertará la plaza respetando el orden del sorteo.
3. A los que se hayan quedado sin plaza, y si es posible, se les ofrecerá la posibilidad de integrarse en otro grupo del mismo nivel.
4. Si se sigue el procedimiento y aun así si no hay plazas para todos, se confeccionará la lista de espera por orden de sorteo.
5. En caso de que a lo largo del curso haya alguna baja, se ofrecerá el lugar a las personas que estén en lista de espera por orden.

- Se podrá solicitar la participación a lo largo de todo el curso. Si hay plazas en el nivel correspondiente se admitirá directamente al alumno o alumna.

4.2.- Control y seguimiento de las clases

- La adjudicataria realizará el seguimiento del servicio, así como su evaluación.

- El Ayuntamiento de Erandio deberá tener información directa y exhaustiva de todo el proceso desarrollado. Por lo tanto, se llevarán reuniones de coordinación con el ayuntamiento, en las que se realizará una valoración del trabajo realizado.

4.3.- Labores de coordinación

- Coordinarse con el Servicio Municipal de Euskera en todo lo que tenga que ver con el desarrollo del servicio.

- Coordinarse con las personas responsables de centros escolares.

La empresa adjudicataria designará al menos una persona coordinadora o responsable, perteneciente a la plantilla del contratista, que será la persona interlocutora con quien se relacionará el Ayuntamiento. La comunicación con el personal de la empresa contratista se

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-06-25 06:55:13(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:55:13 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANA ISABEL HERNANDEZ IÑIGO Data: 2025-06-25 06:59:16(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:59:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (971b4805-63c3-44ae-90e3-a6a62129baf2) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

beharreko komunikazioa enpresak izendatutako koordinatzaile teknikoaren eta arduradunaren bidez gauzatuko da.

4.4.- Ebaluazioa

Ikasturtean 2 ebaluazio txosten aurkeztuko dituzte: tarteko ebaluazioa, abendu-urtarrilean, eta amaierako ebaluazioa, maiatza-ekainean. Bertan ikasleen ikasprozesuari buruzko informazio orokorra jasoko dute; gutxienez, honako hau:

- Ikasleen asistentzia, sexua eta kopurua zentro bakoitzetik.
- Talde bakoitzean landutakoa.
- Ikasle bakoitzaren ikasprozesuari buruzko ebaluazio orokorra.
- Irakasleen balorazio orokorra.

4.5.- Berdintasuna

Eskoletan zehar ez da hizkera sexistarik erabiliko (dokumentuetan, bideoetan, ekintzetan...), ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere.

Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.

4.6.- Inklusioa

Umeen artean dagoen aniztasuna kontuan hartuta, zerbitzuak arreta berezia eskainiko die premia bereziak dituzten pertsonei (gizartean zailtasunak dituztenak; urritasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoak...).

4.7.- Zerbitzuan erabiliko den hizkuntza

Enpresa esleipendunak Erandioko Udalak indarrean duen Euskara Erabilera Planaren arabera emango du zerbitzua, eta bertan jasota dauden hizkuntza irizpideei jarraiki jokatuko du. Beraz, Euskara sailak euskara duenez lan tresna, enpresak sailarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanak ere euskaraz izango dira, eta enpresa

realizará a través de la persona coordinadora designada por la empresa.

4.4.- Evaluación

Durante el curso presentarán 2 informes de evaluación: la intermedia, en diciembre-enero, y la final, en mayo-junio. En dichos informes se incluirá la valoración general de la actividad; entre otros, los siguientes apartados:

- Asistencia y número de alumnos/as que han participado por centro.
- La materia que han trabajado en cada grupo.
- Evaluación general del aprendizaje de cada alumno.
- Valoración general efectuada por los/las profesores/as.

4.5.- Igualdad

No se empleará un lenguaje sexista durante las clases (documentos, videos, actividades...), ni tampoco imágenes que muestren cualquier tipo de discriminación o estereotipo sexista.

Asimismo, fomentar valores como la igualdad, la diversidad, el equilibrio de representación y la diversidad de roles de género y de identidad es un objetivo fundamental a tener en cuenta.

4.6.- Inclusión

Teniendo en cuenta la diversidad existente entre los niños y niñas, se mostrará especial atención a las personas con necesidades especiales (personas con problemas sociales, discapacidad física, psíquica o sensorial ...).

4.7.- Criterio lingüístico del servicio

La empresa adjudicataria actuará según lo establecido en Plan de Uso del Euskara del Ayuntamiento de Erandio, y cumplirá los requisitos lingüísticos establecidos en dicho plan. Dado que el Servicio de Euskera utiliza como lengua vehicular el euskera, la empresa adjudicataria deberá garantizar que sus

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-06-25 06:55:13(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:55:13 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANA ISABEL HERNANDEZ IÑIGO Data: 2025-06-25 06:59:16(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:59:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (971b4805-63c3-44ae-90e3-a6a62129baf2) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

esleipendunak bermatu beharko du hori betetzen dela.

Horrez gain, kontuan hartuta programa honen garapenerako erabiliko den hizkuntza euskara dela, programaren exekuziorako esleitutako langileak euskararen C1 gaitasun maila edo horren baliokideren bat duela egiaztatuko du (Europako Erreferentzia Markoaren egokitzapenaren 48/2009 Dekretua).

5- BITARTEKOAK

5.1.- Azpiegiturak

Zerbitzua garatzeko behar diren lokalak eta oinarrizko ekipamendua Erandioko Udalak jarriko ditu. Oinarrizko garbiketaz ere arduratuko da.

Lokala eta ekipamendua artez eta zuzen erabiltzea esleipendunaren erantzukizuna izango da.

5.2.- Baliabide materialak

Baliabide didaktikoak eta eskolak aurrera eramateko beharrezko material guztia eskura izatea esleipendunaren ardura izango da.

5.3.- Giza baliabideak

Lantaldea behar bezala gaituta egongo da jarduerak garatzeko. Lan hori egiteko proposatutako langileek behar besteko prestakuntza izango dute hizkuntzaren irakaskuntzaren arloan, unibertsitate-ikasketen bidez egiaztatua, eta gutxienez 2 urteko esperientzia irakaskuntzaren arloan, behar bezala egiaztatua. Koordinazio-lanetarako arduradun bat izendatuko da, udalarekiko harremanetan solaskide gisa jardungo duena.

Enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen langile berririk sartuko balitz, horrek ere prestakuntza bera ziurtatu beharko du.

relaciones, tanto orales como escritas, serán en euskera.

Además, ya que el idioma de comunicación habitual en el desarrollo de este programa será el euskera, la persona interlocutora con el Ayuntamiento, deberá acreditar un conocimiento de euskera a nivel de certificado C1 o equivalente (Decreto 48/2009 de adecuación al Marco Común Europeo de Referencia).

5- MEDIOS

5.1.- Infraestructuras

Los locales y equipamiento básico necesario serán proporcionados por el Ayuntamiento de Erandio. También se ocupará de la limpieza básica.

Será responsabilidad de la empresa adjudicataria el uso adecuado y correcto de los locales y el equipamiento.

5.2.- Recursos materiales

Será responsabilidad de la empresa adjudicataria disponer de los recursos didácticos y de los materiales necesarios para llevar a cabo la actividad.

5.3.- Recursos humanos

El equipo de trabajo encargado de desarrollar las actividades estará debidamente capacitado. El personal propuesto para desempeñar tal labor contará con la suficiente formación en el campo de la enseñanza de la lengua, acreditada por estudios universitarios y una experiencia mínima de 2 años en el campo de la docencia acreditada debidamente. Se nombrará a una persona responsable para labores de coordinación que actuará como interlocutor/a en las relaciones con el ayuntamiento.

Si una vez formalizado el contrato se incorporase algún trabajador o trabajadora nueva, la empresa deberá asegurarse de que tiene el nivel requerido en formación.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-06-25 06:55:13(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:55:13 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANA ISABEL HERNANDEZ IÑIGO Data: 2025-06-25 06:59:16(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:59:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (971b4805-63c3-44ae-90e3-a6a62129baf2) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Adjudikaziodunak, era beren, laneko bajak estali beharko ditu.

Kontratatutako langileek laneko legeriak eta indarrean dagoen gizarte segurantzak eskatzen dituzten baldintzak bete beharko dituzte.

26/2015 Legeak aldatzen duen Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, esleipendunak adingabeekin lan egingo duten langile guztien sexu deliturik egin ez izana egiaztatzeko ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko ditu.

Corresponderá, asimismo, a la adjudicataria cubrir las bajas laborales oportunas.

El personal deberá estar contratado con los requisitos legalmente exigidos por la legislación laboral y de la seguridad social vigente.

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 1/1996 de Protección Jurídica del Menor, modificada por la Ley 26/2015, las empresas adjudicatarias deberán aportar certificados negativos del Registro Central de Delincuentes Sexuales de todo el personal que vaya a trabajar con las personas menores.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-06-25 06:55:13(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:55:13 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANA ISABEL HERNANDEZ IÑIGO Data: 2025-06-25 06:59:16(UTC) Fecha: 25/06/2025 06:59:16 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (971b4805-63c3-44ae-90e3-a6a62129baf2) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.